

BAIMENAK ETA PRESTAZIOAK ADINGABEEN

zaintza eta arretarako.

Itsasoaren Araubide Berezia



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

AURKIBIDEA

3 Sarrera

4 Adingabearen jaiotza eta zaintza

8 Erantzunkidetasuna bularreko haurraren zaintzan

9 Arriskua haurdunaldian


11 Arriskua edoskitze naturalaren aldian

13 Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeen zaintza

14 Nora jo behar dut nire prestazio ekonomikoa eskatzeko?

15 Araudia

SARRERA



Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako eskubideak esan nahi du haiek maila berean erabili ahal dituztela eskubideak eta maila berean beteko dituztela betebeharrak, eta horretarako beharrezko baldintzak ezarri behar dira berdintasun hori bai enpleguan bai okupazioan eraginkorra izateko.

6/2019 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 1ekoak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurrienak, neurri zehatz batzuk ezartzen ditu erabateko berdintasunerantz aurrerapauso bat gehiago emateko.

Hala, beste neurri batzuen artean, erreformatu egiten da Langileen Estatutua, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzeko langileek duten eskubidea azpimarratzeko; berdin egiten da jaiotzagatiko edo adingabea zaintzeko bi gurasoen, adoptatzaileen, hartzaileen edo zaindarien baimenen iraunaldia. Aldi berean, egokitu egiten da Gizarte Segurantzako araudia, berriro definitzen dira prestazioak eskubide berrien arabera, amatasun eta aitatasunagatiko lehengo prestazioen ordeztasunagatiko eta adingabea zaintzeko prestazio bakar bat ezartzeko, progresiboki, bi aldeetako eskubideak eta betebeharrak berdintzeko. Gainera, prestazio berri bat sortzen da bularreko haurra erantzunkidetasunez zaintzeko.

Bestalde, behar diren egokitzapenak egiten dira Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian biltzen den babes-ekintzan prestazio horiek barnean hartzeko.

Itsas Langileen Erregimen Berezia (ILEB) langile autonomoak nahiz soldatapeko langileak barnean hartzen dituen araubide bat denez gero, eta Itsasoko Gizarte Institutua, araubide horren erakunde kudeatzailea dela kontuan izanik, bereziki konprometituta dagoenez gero emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekin, komenigarritzat hartu da gida honen bitartez itsasoko langileek jasotzeko eskubidea duten baimenak eta prestazio ekonomikoak hedatu eta ezagutzera ematea, era horretan lortu nahi baita behar diren baldintzak sortzea aurrerapausoak ematen jarraitzeko sektore honetan profesional gisa diharduten emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz.



JAIOITZA ETA

adingabearen zaintza

Zer baimen da?

Zer prestazio jasotzeko eskubidea dut itsasoko langile gisa?

Langileen Estatutuan aurreikusita dagoen baimen bat da, besteren konturako langilea bazara, eta Lan Autonomoaren Estatutuan, zure konturako langilea bazara, kontratua edo jarduera eteten den kasuetan arrazoi hauengatik: jaiotzagatik -erditze aldia eta 12 hilabete baino gutxiago dituen haurraren zaintza hartzen dira barnean-, adopzioagatik, adopzioa xedetzat hartuta adingabearen zaintzaile izateagatik edo familian adingabeari harrera egiteagatik.

Eskubidea duzu, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean aurreikusita, prestazio ekonomikoa jasotzekoa jaiotzagatik eta adingabea zaintzeagatik aurreko atalean aurreikusitako baimenak erabiltzen ari zaren aldian, baldin eta adopzioaren, zaintzaren edo harreraren kasuetan adingabea 6 urtetik beherako bada (edo 18 urtetik beherakoa % 33ko edo goragoko desgaitasun-mailarekin edo gizarteratzeko edo familian integratzeko arazoekin) eta baldin eta, familia-harreraren kasuan, harrera-aldia urte bat baino gutxiago irauten ez badu.

Zer baldintza bete behar dut prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko?

Eskubidea izango duzu eman zaizun baimenak irauten duen aldian prestazio ekonomikoa jasotzeko, baldintza hauek betetzen badituzu:

1-. Afiliatuta eta altan egotea ILEBen.

2-. Ondoren adierazten diren gutxieneko kotizazio-aldiak ziurtatuta izatea, zure adinaren arabera, jaiotzaren datan edo adopzioa xedetzat hartuta haurrari harrera egiteko edo zaintzeko erabaki administratiboa ematen den datan, edo adopzioaren ebazpena ematen den datan:

ADINA	KOTIZAZIO-ALDIA ATSEDENALDIAREN AURRE-AURREKOA
21 urte baino gutxiago dituzu	Ez duzu ziurtatu beharrik aurreko kotizazio-aldirik
21 urteak beteak dituzu baina 26 urte baino gutxiago	90 egun kotizatuta aurre-aurreko 7 urteen barruan Edo, aukeran, 180 egun kotizatuta zure lan-bizitzan
26 urte beteak dituzu	180 egun kotizatuta aurre-aurreko 7 urteen barruan Edo, aukeran, 360 egun kotizatuta zure lan-bizitzan

3-. Kuoten ordainketa egunean izatea, langile autonomoa bazara (eskubidea aitortzeari utzi gabe baita kuotaren ordainketa eteteko ere 30 egun naturalen epe luzaezinean ordaintzeko aukerarekin).

Noiz kobratuko dut prestazio ekonomikoa?

Prestazio ekonomikoa eguneko subsidio bat da (hileko ordaindua) eta zure oinarri arautzailearen % 100aren baliokidea da. Oinarri arautzailea hau izango da:

NORBERE KONTURA / BESTEREN KONTURA	OINARRI ARAUTZAILEAREN KALKULUA
Zure konturako langilea bazara, bigarren edo hirugarren kotizazio-taldeetako, edo besteren konturako langilea bazara:	KO bider atsedenaldiaren hilabetea hasi aurreko hilabetearen aurreko KA zati kotizazio horri dagozkion egunen kopurua (30 egun soldata hileko bada edo 28, 29, 30 edo 31 egun soldata eguneko bada hilabetearen arabera)
Zure konturako langilea bazara, lehenengo kotizazio-taldekoa:	KOen batura, atsedenaldiaren kausaren aurre-aurreko sei hilabeteetan ziurtatuak zati ehun eta laurogei

KO: Kotizazio Oinarria KA: Kontingentzia Arruntak

Prestazio hau PFEZ zerga-ordainketa salbuesten den errentatzat hartzen da.

Badut kuota-hobariaren bat jasotzeko eskubiderik?



ILEBeko lehenengo kotizazio-taldeko langile autonomoa bazara, atsedenaldia hartu duzun denbora horretan, baldin eta gutxienez hilabetekoa bada, eskubidea izango duzu % 100eko kuota-hobaria jasotzeko, neurri horri helden diozun dataren aurreko hamabi hilabeteetan izango zenukeen batez besteko oinarriari kotizazio-mota aplikatzearen emaitzakoa (edo 12 hilabete baino gutxiago bete badituzu alta emanda, altaren datatik zenbatuta). Hobari hori bateragarria da, gainera, enpresari gisa dagokizun horrekin, pertsona langabe bat kontratatzeagatik zure jardura garatzeko, zure ordeko gisa jardun dezan, ondoko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik:



Enpresariak % 100eko hobaria jasotzeko eskubidea dute Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, lan-istripuei eta gaixotasun profesionalak dagozkien horiek barne, eta baterako bilketa-kuoten enpresako ekarpenetan, bitartekotasun-kontratuak egiten dituztenean langabeekin beren soldatapeko langileak ordeztzeko, atsedenaldira diren denbora-tartean.

Noiz hasten da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea jaiotzagatik eta adingabea zaintzeagatik?



Subsidioa nahitaezko atsedenaldia hasten den egun beretik sortzen da, erditu ondorengo egunean jaiotzaren kasuan, edo erabaki administrazioa hartzen den egunetik hasita adopzio-xedeetarako zaintzaren edo harreraren kasuetan, edo ebazpen judiziala ematen den egunetik hasita adopzioen kasuan.

Adingabea jaiotzen den unean, langilea plataforma finkoetan edo artefaktu flotagarrietan zerbitzu ematen ari bada, arrantza-ontzietan edo Itsas Armadakoetan, lan-kontratua eteteko edo ontziaren barruan bere jarduna eteteko ezintasunaren aurrean, erditu eta berehala, orduan, subsidioa nahitaez hasiko da dagokion ontzia edo plataforma uzten den une beretik hasita.

Zenbat denboraz izan dezaket baimena eta prestazio ekonomikoa?

Baimena eta prestazio ekonomikoa jaso ahal izango duzun aldia taula batean laburbiltzen saiatu gara, hainbat faktore hartu behar baitira kontuan eta horien arabera izango da:

- 1 Kausa zein den (jaiotza, adopzioa, zaintza adopzio-xedeekin edo urte bat baino gutxiago iraungo ez duen harrera).
- 2 Kausa noiz sortu den, aurreikusita baitago iraunaldia mailaz maila zabaltzeko aldi iragankor bat, atsedenaldiarekin behin betiko berdintzen den arte 16 astetan bi gurasoentzat 2021etik aurrera.
- 3 Zure egoera zein den, ama biologikoa bazara babes berezi bat baituzu.
- 4 Egoera erabakigarri bat sortuz gero iraunaldia luzatzekoa, besteren artean, jaiotza, adopzio edo harrera anizkoitzen kasuan; seme-alabaren desgaitasuna edo erditze goiztiarra izan bada eta ospitalizazioa nahitaezkoa izan bada.

JAIOTZA			
AMA BIOLOGIKOA	BESTE GURASO BAT		
2019/4/1etik aurrera	2021/1/1etik aurrera ama biologikoak jasotzen duenaren berdina izango da prestazioa.		
LANALDI OSOA: 16 aste (luza daiteke kasuen arabera*), honela: DERRIGORREZ: 6 aste derrigorrez eta etenik gabe, lanaldi osoz, erditu eta berehala kontatzen hasita. Ama biologikoak 4 astera arte aurrerratu dezake erditzeko aurreikusita dagoen dataren aurretik BORONDATEZKOA: 10 aste, derrigorrezko aldian etenik gabeak edo etenekin asteko aldietan, lanaldi osoan edo partzialean, derrigorrezko aldia amaitzen denetik seme-alabak 12 hilabete dituen arte.	2019	2020	
	LANALDI OSOA: 8 aste (+ 4 amak utzi ahal izango dizkionak borondatezko bere alditik).	LANALDI OSOA: 12 aste (+ 2 amak utzi ahal izango dizkionak borondatezko bere alditik).	
	2019	2020	
	DERRIGORREZ: 2 aste derrigorrez eta etenik gabe, lanaldi osoz, erditu eta berehala kontatzen hasita. BORONDATEZ: 6 aste, etenik gabeak edo etenekin asteko aldietan, lanaldi osoan edo partzialean, haurrak 12 hilabete dituen arte.	DERRIGORREZ: 4 aste derrigorrez eta etenik gabe, lanaldi osoz, erditu eta berehala kontatzen hasita. BORONDATEZ: 8 aste, etenik gabeak edo etenekin asteko aldietan, lanaldi osoan edo partzialean, haurrak 12 hilabete dituen arte.	

ADOPZIOA, ZAINZTA ADOPZIO - EDO HARRERA-XEDEEKIN

2019

Gurasoetako bakoitzak 6 aste izango ditu nahitaez (etenik gabe, ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren ondoren eta lanaldi osoz) + borondatezko 12 aste, bi gurasoen artean banatzekoak (etenik gabe ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren ondorengo 12 hilabeteen barruan) gehienez 10 asterekin gurasoetako batentzat.

2020

Gurasoetako bakoitzak 6 aste izango ditu nahitaez (etenik gabe, ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren ondoren eta lanaldi osoz) + borondatezko 16 aste, bi gurasoen artean banatzekoak (etenik gabe ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren ondorengo 12 hilabeteen barruan) gehienez 10 asterekin gurasoetako batentzat.

2021

1/1/2021/1/1etik aurrera: IRAUNALDIA GUZTIRA GURASOETAKO BAKOITZARENTZAT: 16 aste (luza daiteke kasuen arabera*), 6 nahitaez, etenik gabe eta lanaldi osoz, ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren datatik hasita berehala. Gainerako 10 asteak, asteko aldietan, metatuta edo etenekin, ebazpen judizialaren edo erabaki administratiboaren dataren ondorengo 12 hilabeteen barruan.

IRAUNALDIA LUZA DAITEKEEN KASUAK

- Aste 1 luzatzea guraso bakoitzarentzat seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik hasita, jaiotza, adopzio edo harrera anizkoitzen kasuan.
- Aste 1 luzatzea guraso bakoitzarentzat seme-alabaren desgaitasunaren kasuan.
- Luzatzea erditze goiztiarragatik eta ospitalizazioagatik (7 egunetik gora) erditu ondoren, gehienez, 13 asteko aldira arte.

Eta ama biologikoa banitza baina baldintza guztiak beteko ez banituzke, ez nuke eskubidea izango prestazio ekonomikoa jasotzeko nire seme-alaba zaintzeagatik?

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean bertan aurreikusita dago jaiotzagatik kontribuzio-mailarik ez duen subsidio bat ordaintzea, baldin eta langileak, erditzearen kasuan, baldintza guztiak betetzen baditu, jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeko prestazioa jasotzeko ezarriak, gutxieneko kotizazio-aldia izan ezik.

Prestazioaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) % 100aren berdina izango da, jaiotza eta adingabearen zaintzagatiko kontribuzio-prestazioaren arau orokorren arabera kalkulatu den oinarri arautzailearen kopurua txikiagoa denean izan ezik, kasu horretan horren araberakoa izango baita.

Prestazioaren iraunaldia 42 egun naturalekoa izango da, erditzen denetik zenbatzen hasita, nahiz eta, 14 egun natural gehitzen diren kasu hauetakoren bat batera aurkitzen denean:

1

Seme-alaba familia ugari batean jaio izana, edo, bera jaiota, familia ugaria egiten denean.

2

Seme-alaba guraso bakarreko familia batean jaio izana (seme-alaba jaio berriarekin bizi eta familiaren sostengu bakarra den guraso bakar batek eratutakoa).

3

Erditze anizkoitza (jaioberriak bi edo gehiago direnean).

4

Amaren edo seme-alabaren desgaitasuna ehuneko 65ean edo maila horretatik gora.



ERANTZUNKIDETASUNA

bularreko haurraren zaintzan

Zer baimen da?

Zer prestazio jasotzeko eskubidea dut itsasoko langile gisa?

Langileen Estatutuan aurreikusitako lanaldia murriztea da, besteren konturako langileentzat, eta Langile Autonomoen Estatutuan aurreikusitako jarduera etetea, norbere konturako langileentzat, ordu-erdiz (edo lanaldi osoetan lana eteteko ordu bat metatzeko eskubidea), iraunaldi eta erregimen berean, bi gurasoek, adoptatzaileek, zaintzaileek edo hartzaileek, soldataren murrizketa proportzionalarekin, bularreko haurrak 9 hilabete betetzen dituenetik 12 hilabete betetzen dituen arte.

Nahiz eta bi gurasoek, adoptatzaileek, zaintzaileek edo hartzaileek lanaldia murrizteko eskubidea izan arren (ordu-erdi edo metatua) iraunaldi eta erregimen berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean aurreikusitako bularreko haurra erantzunkidetasunez zaintzeagatik prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea haietako baten alde bakarrik aintzat hartuko da, baldin eta biek biltzen badituzte behar diren zirkunstantziak prestazioaren onuradun izateko.

Langile autonomoentzat garatzeko dago araua.

Zer baldintza bete behar dut baimena eta prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko?

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko, jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik prestaziorako ezarritako betekizun berak eskatuko dira, termino eta baldintza beretan. Nahiz eta bi gurasoek, adoptatzaileek, zaintzaileek eta hartzaileek lanaldia iraunaldi berarekin (astetan) eta erregimen berarekin (lanaldiak) murrizteko eskubidea izan behar duten baimena eta prestazioa jasotzeko eskubidea izateko.

Bularreko haurraren erantzunkidetasuneko zaintza betetzen dela ziurtatzeko, onuradunek lan egiten duten enpresak edo enpresariak ziurtagiri bidez eman behar du lanaldiaren murrizketaren berri.





Noiz kobratuko dut prestazio ekonomikoa? Zenbat denboraz?

Prestazio ekonomikoa oinarri arautzailearen % 100aren baliokide izango den subsidio bat izango da, lanaldiak izango duen murrizketarekiko proportzioan. Oinarri arautzailea hau izanik:

$$OA = \frac{KO \text{ bider } KA \text{ lanaldiaren murrizketa hasi den hilabetearen aurrekoari dagokiona}}{\text{Kotizazio horri dagokion egun-kopurua}}$$

KO: Kotizazio Oinarria KA: Kontingentzia Arruntak

Prestazio honek, seme-alaba adingabearen jaiotzari, adopzioari, harrerari edo zaintzari lotutako gainerako errentek bezala, salbuetsita du PFEZa.

Bi gurasoak bularreko haurraren 9 hilabetezko adinetik lanaldi murriztua izateko eskubidea erabiltzen ari diren denboran eskuratuko da subsidio hori, eta haurrak 12 hilabete betetzen dituenean iraungiko da.



ARRISKUA haurdunaldian

Zer baimen da?

Zer prestazio jasotzeko eskubidea dut itsasoko langile gisa?

Baimen bat da besteren konturako emakume langilearen lan-kontratua eteteen edo emakume langile autonomoaren jardura profesionala eteteen, lan-prozedurek edo -baldintzek eragin negatiboa izan dezaketenean emakume langilearen edo fetuaren osasunean.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean aurreikusitako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea duzu haurdunaldiko arriskuagatik, jardueraren etenaldietan, zure egoerarekin bateragarria izango den lanpostu batera edo jardura batera aldatu behar izatean, aldaketa hori teknikoki edo objektiboki posible ez denean, edo exijitu ezin denean justifikatutako arrazoiengatik.

Zer baldintza bete behar dut prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko?

Baldintza hori ILEBen afiliatuta eta alta emanda egotea da. Hala ere, prestazio ekonomiko hau kontingentzia profesioetatik eratorritako prestazio bat denez gero, mota honetako gainerako prestazioetarako bezala, besteren konturako langileak afiliatutzat eta alta emantzat hartzen dira eskubide osoz, enpresariak bere betebeharra bete ez duenean.

Era berean, kontingentzia profesioetatik eratorria izateagatik, ez da gutxieneko kotizazio-aldirik eskatzen prestazioa jasotzeko eskubidea izateko.

Dena den, Osasun Zerbitzu Publikoko (OZP) fakultatiboaren txosten medikoa eskatuko da haurdunaldi-egoera eta erditzeko data posiblea ziurtatzeko, baita haurdunaldian arriskua egon daitekeela adierazten duen ziurtagiri medikoa ere, erakunde kudeatzaileak edo OZPko Osasun Zerbitzuetako Ikuskaritzak luzatua.

Langile autonomoentzat baldintza gehigarri bat dago, hau da, Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egunean izatea (eskubidea aitoritzeari utzi gabe baita kuotaren ordainketa eteteko ere 30 egun naturalen epe luzaezinean ordaintzeko aukerarekin).

Noiz kobratuko dut prestazio ekonomikoa?

Prestazio ekonomikoa eguneko subsidio bat da (hileko ordaindua) eta zure oinarri arautzailearen % 100aren baliokidea da. Oinarri arautzailea hau izango da:

NORBERE KONTURA / BESTEREN KONTURA		OINARRI ARAUTZAILEAREN KALKULUA
Besteren konturako langilea bazara:		KOren batura bider kausaren aurreko hilabeteko AT/EP, aparteko ordurik gabe, zati kotizazio horri dagokion egun-kopurua (30 egun soldata hileko bada edo 28, 29, 30 edo 31 soldata eguneko bada hilabetearen arabera), gehi aurreko urtean egindako aparteko orduak zati 365 egun
Zure konturako langilea bazara:		Osasun-zerbitzuek ziurtagiria igortzen duten dataren aurreko hilabeteko KO, zati 30

KO: Kotizazio Oinarria AT/EP: Kontingentzia Profesionalak

Prestazio ekonomiko honetan atxiki egiten da PFEZa.



Badut kuota-hobariren bat jasotzeko eskubiderik?

Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik lehen ezarritako hobari berak aplikatzen dira, langileak bere lan-kontratua etenda duen denboran edo bere jarduera profesionala eteten duenean haurdunaldiko arriskuagatik, eta kontratuaren etenaldia edo jarduera profesionalarena hasi artean amatasun biologikoagatik, edo aurreko lanpostuan edo bere egoerarekin bateragarria den beste batean berriro hasteko edo jarduera profesionalari berriro heltzeko ezintasuna desagertzen denean.

Noiz sortzen da eta noiz iraungitzen da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea?

Haurdunaldiko arriskuagatik subsidio-eskubidea sortzen da:

1

Haurdunaldiko arriskuagatik zure lan-kontratuaren etenaldia hasten den egun berean, besteren konturako langilea bazara.

2

Haurdunaldiko arriskua egon daitekeela ziurtatzen duen agiri medikoa igortzen den dataren hurrengo egunean, langile autonomoa bazara. Hala ere, ondorio ekonomikoak lan egiteari utzi eta hurrengo egunetik hasita sortuko dira.

Zure segurtasuna edo osasuna eta/edo fetuarena babesteko behar den etenaldian zehar ordainduko da, eta zure jarduera profesionalari berriro heltzeko ezintasunak iraun bitartean.

Jaiotzagatiko edo adingabearen zaintzagatiko kontratuaren etenaldia hasi aurreko egunean amaituko da edo zure aurreko lanpostuan berriro hasi aurreko egunean, edo zure egoerarekin bateragarria den beste batean, edo zure jarduera profesionalari berriro heldu aurreko egunean.



ARRISKUAK

edoskitze naturalaren aldian


Zer baimen da?

Zer prestazio jasotzeko eskubidea dut itsasoko langile gisa?

Baimen bat da besteren konturako emakume langilearen lan-kontratua eteteen edo emakume langile autonomoaren jarduera profesionala eteteen, adingabe baten bederatzi hilabeteko edoskitze naturalaren aldian, lan-prozedurek edo -baldintzek eragin negatiboa izan dezaketenean emakume langilearen edo seme-alabaren osasunean.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean aurreikusitako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea duzu edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik, jardueraren etenaldietan, zure egoerarekin bateragarria izango den lanpostu batera edo jarduera batera aldatu behar izatean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean aurreikusitako terminoetan, aldaketa hori teknikoki edo objektiboki posible ez denean, edo exijitu ezin denean justifikatutako arrazoiengatik.

Zer baldintza bete behar dut prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko?



Prestazio ekonomikorako eskubidea izateko baldintzak haurdunaldiko arriskuagatik lehen aipatutako berak dira, eta salbuespen bakarra hau da: lan-kontratua edo jarduera profesionala etetearen kausa izango da adingabe baten 9 hilabeteko edoskitze naturalaren aldian arriskua egotea, eta hor fetuari egiten zaizkion aipamenak seme-alabari egiten zaizkio hemen.

Noiz kobratuko dut prestazio ekonomikoa?

Haurdunaldiko arriskuagatiko prestaziorako lehen ezarritakoa aplikatuko da.

Badut kuota-hobariren bat jasotzeko eskubiderik?

Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik lehen ezarritako kuota-hobari berak aplikatzen dira, langileak bere lan-kontratua etenda duen denboran edo bere jarduera profesionala eteten duenean edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik, eta bularreko haurrak 9 hilabete betetzen dituen artean edo aurreko lanpostuan edo bere egoerarekin bateragarria den beste batean berriro hasteko edo jarduera profesionalari berriro heltzeko ezintasuna desagertu artean.

Noiz sortzen da eta noiz iraungitzen da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea?

Edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatiko subsidioa jasotzeko eskubidea, haurdunaldiko arriskuagatiko subsidioa jasotzeko eskubideari dagokionez lehen aipatutako termino beretan sortzen da, nahiz eta, ez den prestazioa aintzatesten jaiotzagatiko eta adingabea zaintzeagatiko atsedenaldia iraungi artean, atsedenaldi hori gurasoetatik edozeinek hartu badu ere. Ondorio horretarako, jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazio ekonomikoa den aldi iragankorra 2021ean amaitu arte, aukera ematen duena beste gurasoaren alde, balio gabetuta geratuko da amak beste gurasoaren alde erabilitako aukera eta hark erabili beharko du berriro jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko geratzen den baimen-aldia, lanean hasia denean, edoskitze naturalaren aldian arriskurik antzeman denean, kontuan hartuta horrek berekin ekarriko duela lan-jarduera etetea.

Emakume langilearen eta/edo bere seme-alabaren osasuna babesteko beharrezkoa den aldi ordainduko da, seme-alabak gehienez 9 hilabete betetzen dituen arte; salbuespena hau da: aurretik zure aurreko lanpostuan berriro hasi izana edo zure egoerarekin bateragarria den beste batean, edo zure jarduera profesionalari berriro heldu diozunean. Azken kasu honetan, lanean berriro hasi edo zure jarduerari berriro heldu aurreko egunean utziko zaio subsidioa ordaintzeari.





MINBIZIA EDO BESTE

gaixotasun larri bat duen
adingabearen zaintza

Zer baimen da?

Zer prestazio jasotzeko eskubidea dut itsasoko
langile gisa?

Langileen Estatutuan aurreikusita dago besteren konturako langileen eskubidea, gurasoena, adoptatzaileena, adopzioa xedetzat duten zaintzaileena eta adingabeen betirako hartzaileena, beren lanaldia murrizteko, soldatarekiko proportzionala izango den murrizketarekin, gutxienez, lanaldiaren erdira arte (edo bere metaketa lanaldi osotan

hitzarmen kolektibo bidez horrela aurreikusita badago) minbizia (tumore txarrak, melanomak eta kartzinomak) edo beste edozein gaixotasun larri duen eta beren kargura dagoen adingabea zaintzeko, ospitalizazioaren eta tratamendu jarraituaren aldia, gaixotasunak luzaroko ospitalizazioa berekin ekarriko badu, eta zuzenean eta modu jarraitu eta etengabe batean zaindu beharra badago adingabea.

Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzeagatik prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aurreikusita dago Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, baldin eta bi gurasoek, adoptatzaileek, adopzioa xedetzat duten zaintzaileek edo adingabearen betirako hartzaileek lan egiten dutenean, baina haietako baten alde bakarrik aintzatsitsiko da prestazioa, kontuan hartuta biek bildu behar dituztela onuradun izateko beharrezko baldintzak.

Langile Autonomoen Estatutuan ere dago aurreikusita beren konturako langileei zuzendutako babes hori.

Zer baldintza bete behar dut prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izateko?

Edozein langile izan daiteke onuradun, besteren kontura edo bere kontura lanean ari dena, sexua edozein izanda ere, bere lanaldia murriztuko duena, gutxienez, bere iraunaldiaren % 50ean, betiere baldintza hauek betetzen baditu:

1

Afiliatuta eta altan egotea ILEBen.

2

Adinaren araberrako gutxienerako kotizazio-aldia ziurtatuta izatea bere lanaldi murriztua hasten den datan, eta jaiotzagatiko edo adingabearen zaintzagatiko prestaziorako aurretik aurreikusitakoaren kotizazio-aldiaren berdina izatea.

3

Kuoten ordainketa egunean izatea, langile autonomia izanda (eskubidea aitortzeari utzi gabe baita kuotaren ordainketa eteteko ere 30 egun naturalen epe luzaezinean ordaintzeko aukerarekin).

Zaintza zuzena, jarraitua eta etengabea beharrezkoa denean ziurtatu egin behar da OZPk edo dagokion Autonomia Erkidegoko osasun-erakunde administratiboak igorritako txosten baten bitartez

Noiz kobratuko dut prestazio ekonomikoa?

Prestazio ekonomikoa oinarri arautzailearen % 100aren baliokide den subsidio bat da. Oinarri arautzailea haurdunaldiko edo edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatiko subsidioetarako lehen adierazitako modu berean lortzen da. Langilearen lanaldiak izango duen murrizketaren portzentajearekiko proportzioan aintzatetsiko da subsidioa.

Prestazio hau PFEZ zerga-ordainketa salbuesten den errentatzat hartzen da.

Noiz sortzen da eta noiz iraungitzen da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea?

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea dagokion lanaldiaren murrizketa hasten den egun beretik sortzen da, betiere murrizketa hori egin zen datatik hasita hiru hilabeteko epean formulatzen bada eskaera. Epe hori amaitutakoan, subsidioaren ondorio ekonomikoek hiru hilabeteko gehienezko atzera-egitea izango dute.

Subsidioa hilabete bateko hasierako aldi baterako aintzatetsiko da, eta bi hilabeteko aldietara luza daiteke adingabea zuzenean eta modu jarraitu eta etengabe batean zaindu behar baldin bada, eta egoera hori ziurtatu egin beharko da adingabearen osasun-laguntzaren arduradun den OZPko fakultatiboaren edo dagokion Autonomia Erkidegoko osasun-organo administratiboaren adierazpenaren bitartez, eta, gehienez, adingabeak 18 urte betetzen dituen arte.



NORA JO

behar dut nire prestazio ekonomikoa eskatzeko?

Zure eskaera Itsasoko Gizarte Institutuaren tokiko edo probintziako Zuzendaritzara zuzendu behar duzu, zure helbideari dagokion horretara, eta eskaerarekin batera beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar duzu kausa zehatza ziurtatzeko, baita gainerako betekizunak ziurtatzeko ere, jaiotzagatik eta prestazioaren iraunaldirako ezarritakoak.

Bertara joanda aurkez dezakezu beharrezko dokumentazioa, baina eskueran duzu gainera Erregistro Elektronikorako zerbitzu bat Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa: <https://sede.seg-social.gob.es>. Zerbitzu horretara sarbidea izateko, ziurtagiri elektronikoa edo gako iraunkorra behar duzu eskueran izan. Gainera, erabilgarri dituzu eskaera-eredu normalizatuak, ziurtagirienak eta adierazpenenak, Gizarte Segurantzako web-orrian: www.seg-social.es.

ARAUDIA

1

47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, itsas eta arrantza-sektoreko langileen gizarte-babesa arautzen duena.

2

8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena.

3

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.

4

20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Langile Autonomoen Estatutuarena.

5

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen prebentzioari buruzkoa.

6

295/2009 Errege Dekretua, martxoaren 6koa, Gizarte Segurantzako sisteman amatasunagatik, aitatasunagatik, haurdunaldiko arriskuagatik eta edoskitze naturalaren aldiko arriskuagatik ematen dituen prestazio ekonomikoak arautzen dituena.

7

1148/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, minbizia edo beste eritasun larri bat duten adingabeak zaintzeko prestazio ekonomikoa Gizarte Segurantzaren sisteman aplikatzeko eta garatzeko.

8

11/1998 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 4koa, amatasun, adopzio eta harrera garaian langileak ordeztzeko asmoz langabetuekin egiten diren bitartekotasun-kontratuak direla-eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota-hobariak arautzen dituena.

9

2530/1970 Dekretua, abuztuaren 20koa, beren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezia arautzen duena.,



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Más información:

Página web:

<https://www.seg-social.es>

Sede Electrónica:

<https://sede.seg-social.gob.es>

MINISTERIO DE TRABAJO, MIGRACIONES Y SEGURIDAD SOCIAL

Publicación incluida en el programa editorial del
Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad
Social (Real Decreto 355/2018, de 6 de junio)



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA